

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

ASPANOGI

GIPUZKOAKO HAUR MINBIZIDUNEN GURASO ELKARTEA

Patakon eta Ane Pirata trenean
doaz lagun bat bisitatzera.
Trenean parean eseri zaizkie
Oier eta bere amona.



HARA, NI BEZALAKO
BESTE PIRATA BAT!

NI EZ NAIZ PIRATA!

LASAI, MAITEA,
NESKA HORI ZUREKIN ATSEGINA
IZATEN SAIATU DA.

BARKATUKO AHAL DIOZUE ANERI. BERAK MINBIZIA IZAN ZUEN,
PIRATA BAT DA HORREGATIK, ETA NORBAIT ILERIK GABE ETA TXAPELAREKIN IKUSTEN DUENEAN,
BESTE PIRATA BAT DELA PENTSATZEN DU.



ETA ZERGATIK DA
PIRATA BAT?

AUSARTA DELAKO, EZ DUELAKO IRRIBARREA GALTZEN,
ITSASOA BORTITZEN DAGOENEAN ERE NABIGATZEN SEGITZEN DUELAKO...



EZ IZAN ZALANTZARIK SENDATUKO ZARELA.
INDARTSUAK GARA PIRATAK. ZURE INGURUKOEI
ERAKUTSI EGIN BEHARKO DIEGU MINBIZIA ZER DEN.
EZ DAITEZEN HAINBESTE BELDURTU.



OTSAILAREN 15EAN HAUR MINBIZIDUNEN
NAZIOARTEKO EGUNA IZATEN DA. FUKSIA DA
EGUN HORREN KOLOREA ETA ASPANOGIN PULTSERA
POLIT ASKOAK PRESTATZEN DITUZTE.
PULTSERAK BANATU ZURE
INGURUKOEN ARTEAN.



2017 OTSAILAK 15

ASPANOGIKOEI ESANGO DIEGU ZURE
ESKOLARA JOATEKO EGUN BATEAN
ETA ZURE LAGUNEI AZALTZEKO
ZER DEN MINBIZIA ETA NOLA
SENDATZEN DEN.



URRIAN AMAIERAN ZARAUTZEN
MOBIBIKE EGUNA IZATEN DA, ASPANOGIK ANTOLATUA
ETA KIROLARI SONATUEK LAGUNDUTA. GONBIDATU
ZURE LAGUNAK GURE FESTARA. ETA
HOBETO ULERTUKO DUTE MINBIZIA.





BIZIPOZAKO elkarteak

- ADEMI:** Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkarteak.
- AFESTTA:** Euskadiko Tourette Sindromearen eta bestelako osasun-arazozen familien Elkarteak.
- AGIPASE:** Gipuzkoako guraso bananduen elkarteak.
- AMPGYL:** Gay, Lesbiana, Bixesual eta Transexualen Gurasoen Elkarteak.
- ARNASA:** Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkarteak.
- ASPANIF:** Guraso elkarteak, euren umeak erbi ezpaindu edo ahasabai hautsiekien jaioak izaki eta, batipat, Euskal Herrian jarduten duena.
- ASPANOGL:** Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteak.
- AURRERA ATERA:** Animalien laguntzako terapiaren bidez bazterturiko kolektiboen aurrean laguntza fisiko eta emozionalak lantzen ditu.
- BANAIZ BAGARA:** Euskal Herrian bizi diren etorkinekin euskara ikasteko moduak eskaintzen ditu.
- BEROA:** Gipuzkoako harrera familien elkarteak.
- BIHOTZEEZ:** Kardiopatiadun haurren familien Elkarteak.
- BOCALAN BIAK BAT:** Elbarritasun bat duten lagunei eta gizarte bazterturik geratzeko arriskua dutenei laguntzeko txakurrak hezten ditu.
- CHERNOBILEN LAGUNAK:** Ukrainiako Doviřia gizarte etxarekin lan egiten du Gipuzkoako elkarteak.
- CHRYSALLIS EUSKAL HERRIA:** Adingabe Transexualen Familien Elkarteak.
- DRAVET:** Dravet Sindromea dutenen Fundazioa.
- ETIOPIA UTOPIA:** Wukron eta hedaduraz, Tigray eskualdean, garapenerako lankidetzan lagundu eta laguntza humanitarioa ematea duena.
- FSDPV:** Euskadin down sindromea duten familien elkarteak.
- GEHITU:** Berdintasun Sozialaren defentsan lan egiten dute.
- GIZAKIEN LURRA:** Laguntza zuzena babesik gabeko haurrei. Politika, arraza eta konfesionaltasuna kontuta hartu gabe.
- GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA:** Kirol egokituaren sustapena eta antolatzea Gipuzko.
- GOIERRIKO SAHARAREN ALDEKO LAGUNAK:** Sahara herriaren alde lan egiten duen elkarteak.
- GURE NAHIA:** Gipuzkoako Gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko Elkarteak.
- GURE SEÑEAK:** Bizkaiko Txorierrin gaixotasun arraroak dituzten haurren familien Elkarteak.
- HIRU HAMABI:** Garuneko kaltea jasan duten adin txikikoen familien elkarteak.
- JUNEREN HEGOAK:** Beharra duten beste haurrei laguntzeko sortutako elkarteak.
- KALE DOR KAYIKO:** Ijito Kultur Elkarteak.
- PAUSOKA ELKARTEA:** Beharizan bereziak dituzten haurren gurasoak.
- SEASKAKO INTEGRAZIO BATZORDEA:** Ahalmen urriko haurren eskolatzea sustatzen du ikastoletan.
- UME ALAIA:** Adopzio Familien Elkarteak.
- ULERTUZ:** Bizkaiko Lurraldean entzumen urritasuna duten neska-mutulei eta gazteei eta horien familiei laguntza zuzena sustatzen eta eskaintzen duen elkarteak.

Harremanetarako 647355352 / leire@bizipoza.org
www.bizipoza.org